

HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN  
JARRAIBIDEAK, 2023-2024 IKASTURTERAKO  
IKASTETXE PUBLIKOETAKO HEZKUNTZAKO  
BERRIKUNTZA-ARDURADUNEI (BeA)  
BURUZKOAK.



## Aurkibidea

Sarrera .....	3
Lehena. Ikastetxeetako berrikuntza-arduradunen (BeA) eginkizuna.....	3
Bigarrena. Ikastetxeko berrikuntza-arduradunen (BeA) antolamendu- eta funtzionamendu-egitura.....	4
Hirugarrena. BeA figuren konpetentzia-profila.....	4
Laugarrena. BeA figuren funtzioak.....	5
Bosgarrena. BeA figuraren atribuzioak.....	7
Seigarrena. 2023-2024 ikasturterako zereginak.....	7
Zazpigarrena. Ikastetxeko berrikuntza-arduradunei ordu-kredituak esleitzeko irizpideak.....	9
Zortzigarrena. BeA figuren formazioa eta akonpainamendua: BeAk Trebatzen programa.....	10
Bederatzigarrena. Praktika-komunitateak.....	11
Hamargarrena. BeA figurei akonpainatzeko eta informatzeko, koordinatzeko eta parte hartzeko prozedurak.....	12
Hamaikagarrena. Ikastetxeetako gainerako koordinazio- eta gobernu-organikoekin koordinatzea.....	13
Hamabigarrena. Jarraipena eta ebaluazioa.....	13
<b>I. ERANSKINA. IKASTETXEEI BEREN BeA FIGURETARAKO ORDU-KREDITUA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK, ETA IKASTETXEEN ANTOLAMENDUA ERAGINGUNEETAN .....</b>	<b>16</b>
1. ARABAKO ERAGINGUNEAN SARTZEN DIREN IKASTETXEAK .....	17
2. BILBO HANDIKO ERAGINGUNEAN SARTZEN DIREN IKASTETXEAK .....	19
3. EZKERRALDEKO ERAGINGUNEAN SARTZEN DIREN IKASTETXEAK.....	21
4. ESKUMALDEKO ERAGINGUNEAN SARTZEN DIREN IKASTETXEAK .....	23
5. BARRUTIALDEKO ERAGINGUNEAN SARTZEN DIREN IKASTETXEAK).....	24
6. DONOSTIA-IRUNGO ERAGINGUNEAN SARTZEN DIREN IKASTETXEAK .....	26
7. DEBA-UROLAKO ERAGINGUNEAN SARTZEN DIREN IKASTETXEAK.....	28
8. BURUNTZALDEA-GOIERRIKO ERAGINGUNEAN SARTZEN DIREN IKASTETXEAK .....	29
<b>II. ERANSKINA. IKASTETXEKO BERRIKUNTZA-ARDURADUNARI EDO -ARDURADUNEI ORDU-KREDITUA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.....</b>	<b>31</b>
7.1. 1. MOTA: HAUR HEZKUNTZAKO IKASTETXEAK (EEI-HE): .....	32
7.2. 2. MOTA: HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEAK (CEIP-HLHI).....	32
7.2.1. Lanaldi erdiko esleipena duten ikastetxeak.....	32
7.2.2. Lanaldi bat esleituta duten ikastetxeak.....	32
7.2.3. Lanaldi bat eta erdi (1,5) esleituta duten ikastetxeak:.....	33
7.2.4. Lanaldi bi eta erdi esleituta duten ikastetxeak: .....	33



7.3. 3. MOTA: DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) EDO BATXILERGOA (bietako bat bakarrik) EMATEN DUTEN BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUAK (IES-BHI).....	34
7.3.1. Lanaldi bat esleituta duten ikastetxeak: .....	34
7.3.2. Lanaldi bat eta erdi (1,5) esleituta duten ikastetxeak:.....	34
7.4. 4. MOTA: DBHko ETA BATXILERGOko ETAPAK (biak) EMATEN DITUZTEN BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUAK (IES-BHI) .....	35
7.4.1. Lanaldi bat eta erdi (1,5) esleituta duten ikastetxeak:.....	35
7.4.2. Lanaldi bi (2) esleituta duten ikastetxeak: .....	36
7.4.3. Lanaldi bi (2) edo hortik gora esleituta duten ikastetxeak: .....	36
7.5. 5. MOTA: HAUR HEZKUNTZAKO, LEHEN HEZKUNTZAKO ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ETAPAK ESKAINTZEN DITUZTEN IKASTETXE PUBLIKO INTEGRATUAK (CPI-IPI) .....	37
7.5.1. Lanaldi bat eta erdi (1,5) esleituta duten ikastetxeak.....	37
7.5.2. Lanaldi bi (2) esleituta duten ikastetxeak .....	37
7.5.3. Lanaldi bi ta erdi (2,5) edo hortik gora esleituta duten ikastetxeak .....	37
7.6. 6. MOTA: HAUR HEZKUNTZako, LEHEN HEZKUNTZako, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZako ETA BATXILERGOko ETAPAK ESKAINTZEN DITUZTEN IKASTETXE PUBLIKO INTEGRATUAK (CPI-IPI) 38	
LABURPENA.....	39
III. ERANSKINA. BeA FIGURETARAKO FORMAZIO- ETA LAGUNTZA-PROGRAMA ESPEZIFIKOA: BeAk TREBATZEN .....	45
IV. ERANSKINA. Berrikuntzarako ordu-kreditua eta BeA figurak esleitzeko proposamena egiteko prozedura. ....	53



## Sarrera

Gaur egungo nahiz etorkizuneko erronkei aurre egiten lagunduko dieten trebetasunak eta kompetentziak garatzeko espazioak izan behar dute ikastetxeek. Ezinbestekoa da berrikuntzaren abangoardian kokatzea, ikasleek kalitatezko hezkuntza jasoko dutela ziurtatzeko. Alde horretatik, haietako bakoitzaren errealitatetik abiatuta, ikastetxeek ikaskuntzaren berrikuntza sustatu behar dute, betiere bakoitza bere Hezkuntza Proiektuarekin bat etorritik, eta bere hezkuntza-komunitatearen errealitatetik eta ezaugarrietatik abiatuta. Beraz, asmoa ez da berritzeagatik berritzea, baizik eta ikastetxeetan ezarritako berrikuntzak ikuspuntu holistiko eta kontestualizatu batetik garatzea eta ikasleen errendimendu akademikoan eta hezkuntza-kalitatean eragin esanguratsu eta positiboa izatea.

Testuinguru horretan, [Hezkuntza Sailburuordearen 2022-2023 ikasturtearen hasierako Ebazpenek](#) lehen aldiz jasotzen dute ikastetxeentzako berrikuntzako ordu-kreditu baten esleipena, eta horren isla da Berrikuntza arduraduna (aurrerantzean, BeA figura edo figurak). Figura horiek zuzendaritza-taldearekin berrikuntzaren arloan lankidetzan aritzeko sortu ziren, ikastetxeetako behar eta erronkei erantzun integrala emateko, berrikuntza- eta prestakuntza-proiektuak ezarriz. Ikuspegi berri horretatik, proiektu eta/edo deialdien araberrako ordu-esleipen zatikatua gainditu behar da, ikastetxearen ikuspegi orokorra lehenesten duen eszenatoki batera igarotzeko, bertan garatzen diren proiektu guztiak norabide koherente bakar batean kokatu daitezzen, Hezkuntza Proiektuarekin bat.

Horri dagokionez, 2022ko azaroaren 2an argitaratu ziren ikastetxeetako berrikuntza-arduradunen (BeA) jarduketa-esparrua ezartzen duten eta 2022-2023 ikasturtean horientzako berariazko formazio-plana arautzen duten [Hezkuntza sailburuordearen jarraibideak](#).

Inplementatu eta urtebete igarota, inplikaturako eragileekin (Berritzeguneetako aholkularitzak, ikastetxeetako zuzendaritzak, BeAk, Hezkuntza Ikuskaritza...) jarraipena eta ebaluazioa egin ostean, beharrezkotzat jo da honako jarraibide hauek prestatzea, eragileen lana erraztu dadin eta Euskal Eskola Publikoan integra daitezzen.

Jarraibide hauen xedea da Hezkuntza Sailaren titulartasuneko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan BeA figuren eginkizuna eta funtzionamendua, haiek hautatu eta izendatzeko prozesua eta haien eginkizunak betetzeko beharrezkoa den formazioa arautzea.

[↑Aurkibidea](#)

## Lehen. Ikastetxeetako berrikuntza-arduradunen (BeA) eginkizuna.

Eginkizun nagusia da ikastetxeetan ikaskuntza berritzeko prozesuak eta proiektuak sustatzea, dinamizatzea eta koordinatzea, ikastetxearen Hezkuntza Proiektuarekin eta horren ondoriozko dokumentu estrategikoekin bat etorritik. Hori guztia, zuzendaritza-taldearekin lankidetzan estuan eta koordinatuta egingo da, ikastetxeko hezkuntzaren kalitatea hobetu dadin eta ikasleen aniztasunari ikuspuntu inklusibotik erantzun dakion, berrikuntzaren kultura sustatzearen eta hezkuntza-teknologiak eta -tresnak ezartzearen bidetik.

[↑Aurkibidea](#)



## Bigarrena. Ikastetxeko berrikuntza-arduradunen (BeA) antolamendu- eta funtzionamendu-egitura.

1. Zuzendaritza-taldeak BeA figuraren eginkizunak zehaztuko ditu, betiere ikastetxearen lehentasunen eta garatzen dituen proiektuen arabera eta jarraibide hauetan ezarritakoa kontuan hartuz.
2. Bi figura BeA dituzten Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, hezkuntza berriztatzeko eta eraldatzeko batzorde bat sortu ahal izango da. Batzorde horretan, BeA horietako bat erreferentziatzko figura izango da, eta jarraibide hauen [hamaikagarren](#) atalean ezartzen diren ikastetxeko gobernu- eta koordinazio-organoekin zuzenean koordinatuko da. Erreferentziatzko figura hori ikastetxeko Pedagogia Batzordeko kide izendatuko da.
3. Bi BeA edo gehiago dituzten Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetan eta Ikastetxe Publiko Integratuetan, hezkuntza berriztatzeko eta eraldatzeko departamentu ez-didaktiko bat sortu ahal izango da. Departamentu horretan, BeA horietako bat erreferentziatzko figura izango da, eta jarraibide hauen [hamaikagarren](#) atalean ezartzen diren ikastetxeko gobernu- eta koordinazio-organoekin zuzenean koordinatuko da. Erreferentziatzko figura hori ikastetxeko Pedagogia Batzordeko kide izendatuko da.
4. BeA bakarra duten ikastetxeetan, pertsona hori ikastetxeko Pedagogia Batzordeko kide izendatuko da. [↑Aurkibidea](#)

## Hirugarrena. BeA figuren kompetentzia-profila.

1. BeA figuren kompetentzia-profilak honako trebetasun eta ezagutza hauek hartuko ditu barne, baita etengabeko formazio eta birziklatzeko konpromisoa ere, honela definitzen den kompetentzia-profila garatzeko:
  - a) **Pedagogia-ezagutzak:** pedagogiaren arloko formazioa sendoa, hezkuntzari buruzko egungo joerei eta teoriei buruzko ezagutza, eta hezkuntzaren helburuei eta xedeei buruzko ikuspegi argia.
  - b) **Lidergo-trebetasunak:** irakasle-taldeak koordinatzeko eta motibatzeke lidergo-trebetasunak, eta sormena, lankidetzeta eta taldean lan egiteko gaitasuna sustatzeko ahalmena.
  - c) **Sormena eta berrikuntza:** hezkuntzan berritzeko aukerak identifikatzeko gaitasuna, eta sormenezko irtenbideak, metodologia berriak eta ikastetxeko ikasleen ikaskuntza hobetuko duten tresnak proposatzeko gaitasuna.
  - d) **Hezkuntza-teknopedagogiako ezagutzak:** garapen bidean dauden hezkuntza-teknologiaren arloko ezagutza, ikasgelan eraginkortasunez erabiltzeko.
  - e) **Komunikazio-trebetasunak:** irakasle-taldearekin eta ikastetxeko beste kide batzuekin komunikatzeko eta berrikuntzak eraginkortasunez ezartzen direla ziurtatzeko gaitasuna. Horretarako, gai izan behar du bere ideiak eta proposamenak ahoz eta idatziz



eraginkortasunez eta adierazpenez komunikatzeko, eta gai izan behar du bere proposamenak argi eta konbentzitzeko moduan aurkezteko.

- f) **Hezkuntza-ebaluazioari buruzko ezagutza:** ebaluazio-planak diseinatzeko gaitasuna. Horretarako, datuak eta informazioa aztertzekeo gai izan behar du, bere ikastetxean ezarritako hezkuntza-berrikuntzen inpaktua neur dadin eta, beharrezkoa denean, egokitzapenak egin daitezten.
- g) Ikastetxearen **hezkuntza-testuingurua ezagutzea** eta Euskal Eskola Publikoaren ildo estrategikoen eta hezkuntza-arauen jakinaren gainean egotea.
- h) **Proiektuak kudeatzeko trebetasuna:** hezkuntza-berrikuntzako proiektuak planifikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko trebetasuna, eta lantaldeak eraginkortasunez koordinatzeko eta zuzentzeko gaitasuna.
- i) **Pentsamendu kritikoa:** hezkuntzaren arloko teknologia eta metodo berriak modu kritikoan ebaluatzeko eta bere ikastetxean egokiak diren zehazteko gaitasuna.
- j) **Ongizate emozionala:** proiektuen inplementazioan ikasleen eta irakasleen ongizate emozionala sustatzeko konpetentzia.
- k) **Moldagarritasuna:** irakasteko, kudeatzeko eta antolatzeko modu berrietara egokitzeko eta aldatzeko gaitasuna.

2. Laburbilduz, hezkuntzako berrikuntza-arduradunak pertsona kualifikatua izan behar du, formazioa pedagogiko sendoa izan behar du, baita, besteak beste, lidergo-trebetasuna, sormena, ezagutza teknologikoa eta komunikazio-trebetasuna ere. Konpetentzia-profil hori eduki behar du edo — formazioaren bidez edo laguntzaren bidez—, epe laburrean profil hori garatzeko ahalmena izan behar du.

[↑Aurkibidea](#)

## Laugarrena. BeA figuren funtzioak.

1. Ikastetxeko BeAk funtzio komun batzuk beteko ditu. Nolanahi ere, aldatu egin daitezke ikastetxearen ezaugarri eta behar espezifikoaren arabera. Funtzioak, hauexek:

- a) **Lidergo pedagogikoko funtzioa:**
  - Ikastetxeak parte hartzen duen proiektuak ezagutzea, haien arteko harremanak ezartzeko eta izaera integrala emateko.
  - Teknologia, tresna, joera eta korrante pedagogiko berriak ikertzea eta ebaluatzea, ikastetxean egokiak direnak ezartzeko.
  - Ikastetxearen diagnostiko globalean oinarritutako strategiaren diseinuan parte hartzea.
  - Hobekuntza-arloak identifikatzea, bai irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuari dagokionez, bai hezkuntzaren teknologiar dagokionez.
  - Ikastetxearen strategiarekin bat datozen eta helburu argiak, ekintzak, kronogramak eta jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak barne hartzen dituzten berrikuntza-proiektuak garatzea, eraginkortasunez ezar daitezten.



- Irakaskuntza eta ikaskuntza-prozesuaren hainbat arlotan erreferente diren edo talentua duten pertsonak identifikatzea.

**b) Ikastetxeak dinamizatzeko funtzioa:**

- Ikastetxearen errealitatea ezagutzeko bidezkoztat edo beharrezkoztat jotzen diren ikastetxeko koordinazio-organoetan parte-hartzea.
- Klaustroari lan-dinamika eraginkorrak proposatzea.
- Klaustroari aholkuak eta laguntza ematea, hezkuntza-zalantzak argitu daitezen edo horiek konpontzeko moduak bilatu daitezen.
- Ikastetxearen barruan komunikazioa hobetzeko mekanismoak bilatzea.
- Espazio partekatua antolatzea, non irakasle-taldeak praktika onak eta hezkuntza-berrikuntzarekin lotzen diren jardunbideak aztertu eta partekatu ahal izango dituen.
- Ikastetxe osoan berrikuntza-kultura ezartzeko eta hari eusteko lan egitea.
- Ikasgelan irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen aldaketa metodologikoa erraztuko duten teknologia, material eta baliabide digitalen erabilera sustatzea.

**c) Formazio-funtzioa:**

- Hezkuntza-arloko gaurkotasuna duten gaiak partekatzea klaustroarekin.
- Ikastetxeko hezkuntza-etapa bakoitzaren identitatea eta ezaugarriak ezagutzea.
- Irakasleei trebakuntza eta baliabideak ematea, inplementatzen diren tresnak eta teknologiak erabiltzen ikas dezaten.
- Lankideei hezkuntza-berrikuntzaren arloko material esanguratsuak eskaini.
- Koformaziorako guneak eta uneak sortu.

**d) Sareak sortzeko eta Euskal Eskola Publikoa indartzeko funtzioa:**

- Beste ikastetxeekin berrikuntza-proiektuetan parte hartzea sareak sortzeko.
- Ikastetxeko praktika berritzaileak behatzea, erregistratzea, monitorizatzea eta koordinatzea, Euskal Eskola Publikoko gainerako ikastetxeekin partekatzeko.
- Antzeko proiektuak garatzen dituzten ikastetxe publikoekin praktika-komunitateak eratzen laguntzea.
- Ikastetxearen ingurunean lidergo pedagogikoa dutela erakutsi duten pertsonak aurkitzea, berrikuntzako eta aldaketako prozesuak bultzatzeari begira.
- Bere hezkuntza-ibilbidea osatzen duten ikastetxeetako BeA figurekin koordinatzea, etapan arteko trantsizioa erraztuko duen estrategia komuna garatzen laguntzeko.
- BeAk Hezkuntza Sailarekin elkarlanean arituko dira hezkuntza-berrikuntzari lotutako aholkularitza, jarraipen, ebaluazio eta kudeaketako zereginetan, bai beren ikastetxean bertan, bai parte hartzen duten sare edota praktika-komunitatetako ikastetxeetan.

3. Ikastetxeko zuzendaritzak BeA figurei esleitutako funtzioak lehenetsiko ditu. Eginkizun horiek ikastetxeko gobernu- eta koordinazio-organoekin koordinatuta beteko dira.



## Bosgarrena. BeA figuraren atribuzioak.

1. Aurreko atalean ezarritako funtzioak betetze aldera, BeA figurek honako atribuzio hauek izango dituzte:

- a) Ikastetxean bere funtzioekin zerikusia duten jarduerak ezagutzea, bertan inplementatzen ari diren berrikuntza-proiektuak monitorizatzeko eta horien jarraipena egin ahal izateko.
- b) Ikastetxean garatutako berrikuntza-proiektuen garapena eta hobekuntza egiaztatzea, ebaluazio-tresna egokien bidez.
- c) Ikastetxeko formazio-planaren jarraipena egitea.
- d) Ikastetxeko gobernu- eta koordinazio-organoen bileretan parte hartzea, jarraibide hauen [hamaikagarren](#) atalean ezarritakoaren arabera.
- e) Hezkuntza Sailak figura horientzat eskaintzen dituen formazio-saioetan parte hartzea.
- f) Euskal Eskola Publikoaren hezkuntza-berrikuntzan hobetzen laguntzea, ikastetxeko esperientziatik eta parte hartzen duen sare eta praktika komunitatetik abiatuta.
- g) Bere funtzioen barruan ikastetxeko zuzendaritzak esleitzen dion beste edozein atribuzio.

[↑Aurkibidea](#)

## Seigarrena. 2023-2024 ikasturterako zereginak.

1. 2023-2024 ikasturtean osatuko da Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculum berrien inplementazioa. Ildo horretan, ikastetxeek beren hezkuntza-etapen curriculum egokitzen, garatzen eta osatzen jarraituko dute eta ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan integratuko dute. Hori kontuan izanik, BeA figuren zereginak alderdi hauetan oinarrituko dira funtsean:

- a) Zuzendaritza-taldeari arloak edo irakasgaiak malgutasunez antolatzen laguntzea (proiektu globalizatuen, eremuen bidez... ) eta ikasleen ezaugarrietara gehien egokitzen diren antolakuntza- edo arreta-neurriak hartzea. **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren kasuan**, eremuetan multzokatutako irakasgaiak diseinatzea eta planifikatzea, etaparen lehenengo bi ikasturteetan gutxienez.
- b) Irakasleek **programazio didaktikoak** eta, hala badagokio, dagozkien **ikas-egoerak**, **erronken bidezko lanak**, **proiektu globalizatuak** eguneratu, ezarri eta ebaluatu ditzaten, ikasketaburutzari beharrezko **plangintza eta formazioa** antolatzen laguntzea.
- c) Zuzendaritza-taldeari eta irakasleei laguntzea curriculum berriaren barruan hartzen diren **erabakiak ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan** jasotzen direla eta inplementatzen direla ziurtatzeko; erabaki horiek planifikatzea eta dagokion dokumentazioan jasotzea, abian jartzea, jarraipena egitea, ebaluatzea eta hobetzea, betiere zuzendaritzak ezartzen dituen ikastetxeko organoekin koordinatuta (ikasketaburutzak, pedagogia-batzordea, zikloko





arduradunak, saileko burutzak...). Gomendatzen da ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek honako **alderdi** hauek lehenestea:

- Eremu, arlo edo jakintzagaietan dauden konpetentzia espezifikoen **ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak definitzea**.
- **Ikasleen ikaskuntza-prozesua ebaluatzeko prozedurak diseinatzea**.
- Askotariko **ebaluazio-tresnak definitzea**, ikasle guztien ikaskuntzaren bilakaera behar bezala balora dadin. Tresna horiek ikasleen berariazko ezaugarrietara eta premietara egokitu ahal izango dira, baita ikasteko zenbait egoeratarara ere.
- Ikasleen **promozioari eta titulazioari** buruzko erabakiak hartzeko garaian kontuan hartuko diren **kalifikazio-irizpideak definitzea**.
- Ebaluazio-sistemak garatzea eta detekzio goiztiarreko protokoloak inplementatzea, **ikasleek hezkuntza-prozesuan** izan ditzaketen **beharrak detektatzeko** —irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren plangintzan erabakiak hartzen eta horiek kudeatzen lagunduko du—.
- **Ebaluazio-sistemak eta irakaskuntza-praktika bera definitzea**, horien hobekuntza sustatze aldera —ikasleen barne- eta kanpo-ebaluazioko datuetatik abiatuta, neurriak ezarri behar dira curriculumaren, antolaketaren eta, bereziki, irakaskuntza-jardunaren esparruetan—. Erabaki horiek hobekuntza-helburu gisa islatu beharko dira irakaskuntza- eta ikaskuntza- prozesuen plangintza-dokumentuetan (programazio didaktikoetan eta dagozkien memorietan).

d) Klaustroari trebakuntza, tresnak eta baliabideak ematea, erabakitzen diren curriculum-erabakiak arrakastaz inplementa daitezten, eta **irakaskuntza-jardunari buruzko gogoeta-espazioak** sortzea.

2. 2022-2023 ikasturtean ikastetxe guztiek diseinatu dute beren **Proiektu Digitala**. Aldi berean, Hezkuntza Sailak abian jarri du [Euskal hezkuntza-sistema ez-unibertsitarioaren mentoretza digitalari buruzko DigCompEdu Gelan](#) programa, euskal hezkuntza-sistemaren eraldaketa digitalerako erreferentzia izan dadin. 2022-2023 ikasturtean, *DigCompEdu Gelan* mentoretza-sareak ikastetxeei lagundu die proiektu digitalak diseinatzeko eta irakasleei konpetentzia digitalerako prestatzen. Horrenbestez, eta arlo horrekin lotuta, BeA figuren zereginak alderdi hauetan oinarrituko dira funtsean:

- a) Ikastetxearen Digitalizazio Batzordean parte hartzea, proiektu digitalaren inplementazioa dinamizatu eta koordinatzeko, proiektuari esleitutako mentorearen laguntzarekin. Irizpide orokor gisa, ikastetxeko BeA figurak edo, hala badagokio, horietako batek batzorde hori koordinatzeko funtzioa izango du.
- b) Prestakuntza tutorizatzea, ikastetxeei eskainiko zaizkien ikastaroetan klaustroak parte hartzen badu, irakasleen konpetentzia digitala egiaztatzeko prozesuan aurrera egin dezaten (10



orduko pasabideak A2, B1 edo B2 egiaztatzeko). Horretarako, aurretiazko formazioa izango dute, baita mentore digitalaren aholkularitza ere.

3. Jarraibide hauetako [lehenengo](#) atalean aipatzen den BeA figuren eginkizuna kontuan hartuta, figura horiei beste zeregin hauek ere esleituko zaizkie:

- a) **Ikastetxeko Formazioa Plana** diseinatzea, koordinatzea eta haren jarraipena egitea, zuzendaritza-taldeak gainbegiratuta. Plan horretan, **berrikuntza-proiektuak** eta haien **gaikuntza-programak** barne hartuko dira, elkarren arteko erlazioak ezar daitezten eta izaera integrala izan dezaten.
- b) Ikastetxearen estrategiarekin bat datozen eta helburu argiak, ekintzak, kronogramak eta jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak barne hartzen dituzten **berrikuntza-proiektuak koordinatzea**, eraginkortasunez inplementa daitezten.
- c) Ikastetxeak garatzen dituen **berrikuntza-proiektuekin lotutako praktika-komunitateetan parte hartzea**, zuzendaritza-taldeak erabakitzen duen kasuetan.
- d) Zuzendaritza-taldearekin lankidetzan aritzea: **ikastetxearen diagnostikoan**, kanpo-ebaluazioetako datuetatik (ebaluazio diagnostikoak, USE proba...) eta barne-ebaluazioetako datuetatik abiatuta; **hobekuntza-arloen identifikazioan**, bai irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuei dagokienez, bai hezkuntzaren teknologiarri dagokionez; eta horren ondoriozko **hobekuntza proposamenen diseinuan, inplementazioan, jarraipenean eta ebaluazioan**.

[↑Aurkibidea](#)

Zazpigarrena. **Ikastetxeko berrikuntza-arduradunei ordu-kredituak esleitzeko irizpideak.**

1. Hezkuntza Sailak jarraibide hauen [1. eranskinean](#) ezarritako irizpideen arabera esleituko dizkio ikastetxe bakoitzari berrikuntzarako ordu-kredituak.

2. Zuzendariak —hala badagokio, 2023-2024 ikasturterako ikastetxeko zuzendari izendatuko den pertsonaren oniritziarekin— bere ikastetxean berrikuntza-arduradun izango den edo diren pertsonak izendatzeko proposamena egingo du.

3. Proposamen horrek honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Dagokion ikastetxean behin betiko edo behin-behineko lantoki duen karrerako funtzionarioa izatea. Era berean, bitarteko funtzionario bat proposatu ahal izango da, baldin eta ikastetxean egonkortuta badago.



- b) Gutxienez, ikastetxeko klaustroaren parte izan den eta 2022-2023 ikasturtean jardunean dagoen irakaslea izatea.
  - c) Ikastetxeko zuzendaria ezin da BeA figura izan.
  - d) Ordu-liberazioa dakarten formazioetan, hala nola IRALE programan, parte hartzen duten irakasleak ezingo dira BeA izendatu.
  - e) Irakaskuntzako konpetentzia digitalean A2 akreditazioa izatea, edo, hala badagokio, 2023ko irailerako akreditatuta egotea.
4. Aurreko ataletan ezarritako baldintzak betetzen dituzten irakasleen artean ordu-kredituak esleitu dira, jarraibide hauetako [II. eranskinean](#) ezarritakoaren arabera.
5. Prozedura telematikoa gaitu da, zuzendariak proposamen hori egin dezan —hala badagokio, 2023-2024 ikasturterako zuzendari izendatuko den pertsonaren oniritziarekin—. (ikus [IV. eranskina](#))
6. Proposamen guztiak baliozkotu beharko ditu ondorio horretarako ezarritako batzordeak.
7. Proposamenak ez baditu aurretik ezarritako baldintzak betetzen, zuzendariak bere eskaeran arrazoitu beharko ditu proposamen hori egitera eraman duten aparteko inguruabarrak. Baliozkotze-batzordeak bidezko informazio osagarria eskatu ahal izango dio ikastetxeko zuzendaritzari, aparteko inguruabar horiek baloratu ahal izan ditzan, eta horren arabera onetsi edo ezetsiko du proposamena.
8. Batzordeak dagokion ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko dizkio bere baliozkotzeak. Baliozkotzea aldekoa izanez gero, zuzendariak izendatuko ditu berrikuntza-arduraduna edo -arduradunak.
9. Zuzendariak ez badu proposamena egiten, edo baliozkotze-batzordeak ez badu egindako proposamena egokitzen jotzen, dagokion lurralde historikoko Hezkuntza Ordezkariek pertsonarik egokiena edo, hala badagokio, egokienak izendatuko ditu, Hezkuntza Ikuskaritzaren txostenaren ondoren.

[↑Aurkibidea](#)

## Zortzigarrena. BeA figuren formazioa eta akonpainamendua: *BeAk Trebatzen* programa

1. BeAk 2022-2023 ikasturtean sortu direla kontuan hartuta, **figura** horiek **berritzat** jo daitezke Euskal Eskola Publikoan. Horregatik, berrikuntza-figura horientzako **formazio eta akonpainamendua oso garrantzitsua da**, beren funtzioak eraginkortasunez betetzeko beharrezkoak diren konpetentziak, ezagutzak eta tresnak eskuratzen lagunduko baitie.

Formazio honek beren funtzioak arrakastaz gauzatzeko beharrezkoak diren prozesuak eta tresnak ulertzen lagunduko die. Gainera, formazio horren bidez, esperientziak partekatzeko guneak eta uneak eskainiko dira. Gune hauen bitartez, harreman formalak eta informalak sustatzeko aukera izango da, ikastetxeen arteko sareak eta praktika-komunitateak sortzeko.



Era berean, formazio hori ikuspegi holistiko batekin diseinatuko da, ikastetxeetako berrikuntza-proiektuen ezagutza zabalagoa eta zehatzagoa izateko.

Formazio horrek berrikuntza-figuri funtsezko trebetasunak garatzea ahalbidetuko die, hala nola lidergotza, talde-lana eta arazoak kudeatzea.

2. **BeAk Trebatzen programa espezifikoaren** bidez BeA figuren formazioa eta akonpainamendua egingo da.
3. Programa espezifiko horren plangintza, koordinazioa eta jarraipena Berritzegune Nagusiko Curriculum Garapenaren esparruari eta Metodologiaren eta Irakaskuntzako Konpetentziak esparruari dagokie, Hezkuntza Sailburuordeak zehaztutako ildo estrategikoen arabera.
4. Ikastetxeko zuzendaritzak ikastetxearen beharren arabera sustatu ahal izango du BeA figuren formazioa, betiere esleitutako funtzioen eta atribuzioen arabera.
5. Programa espezifiko horren xedea da, batetik, BeA figurek beren funtzioak betetzeko izan behar dituzten konpetentziak garatzea —jarraibide hauetako [hirugarren](#) eta [laugarren](#) ataletan agertzen direnak— eta, bestetik, BeA figurei laguntzea [seigarren](#) atalean agertzen diren zereginen garapenean.
6. Programa hainbat **formazioa jardueratan** egituratuko da, eta jarduera horiek askotariko formazio-**mota eta -modalitatetan** zehaztuko dira.
7. *BeAk Trebatzen* programaren iraupena **130 ordukoa** izango da.
8. *BeAk Trebatzen* programan BeA figurek 2023-2024 ikasturtean irakasleen konpetentzia digitalaren B2 maila akreditatzeko aukera izango dute.
9. Jarraibide hauetako [III. eranskinean](#) zehazten dira *BeAk Trebatzen* programa espezifikoaren ezaugarriak. Ikasturtearen hasierako Ebazpenean xehetasun handiagoz zehaztuko dira programa horren kronograma eta edukia, eta ikastetxeak horiek kontuan hartu beharko ditu bere plangintzan. Salbuespen gisa, Hezkuntza Sailak BeA formazio-saioetara edo bileretara bertaratzeko deitu ahal izango du, aurreikusitako egutegitik kanpo. Ikastetxeko zuzendaritzak figura hori formazioa edo bilera horietara bertaratzeko dela bermatzeko mekanismoak eduki beharko ditu.

[↑Aurkibidea](#)

## Bederatzigarrena. Praktika-komunitateak.

1. Praktika-komunitate bat ikastetxeen arteko lan-talde bat da, berrikuntza-proiektu jakin baten diseinuari, garapenari, jarraipenari eta ebaluazioari buruzko esperientziak, ezagutzak eta praktika onak partekatzen dituena.



2. Jarraibide hauetako [zazpigarren](#) atalean jasotzen den BeAk izendatzeko proposamenaren barruan, zuzendaritzak 2023-2024 ikasturtean garatuko dituzten berrikuntza-proiektuen berri emateko gune bat prestatuko da. Datu horietan oinarrituta, berrikuntza-proiektuak praktika-komunitate baten bidez garatzen dituzten ikastetxeak identifikatuko dira, bai eta 2023-2024 ikasturterako praktika-komunitate berriak sortu ditzaketen berrikuntza-proiektuak eta ikastetxeak ere.
3. Talde horiek ikasturtean zehar eratu daitezke, aurretik egindako formazio-jarduera bati (monografikoa, ikastaroa...) jarraipena eta eraginkortasuna emateko.
4. Praktika-komunitate batean parte hartzea borondatezkoa izango da ikastetxearentzat, baina komunitate horretan atxikitzeko konpromisoa hartu ondoren, ikastetxeak kasuan kasuko praktika-komunitateak ezartzen dituen konpromisoak bete beharko ditu.
5. Ikastetxeko zuzendaritzak erabakiko du praktika-komunitate horretan parte hartuko duena BeA izango den edo beste irakasle bat izango den. Azken kasu honetan, BeA figurak irakasle horiekin koordinatzeko ardura izango du, praktika-komunitate horren babespean garatzen diren berrikuntza-proiektuen ezarpenaren jarraipena egin ahal izateko.
6. Praktika-komunitate horiek Berritzegune Nagusiko esparru bateko aholkulari baten laguntza izan dezakete, baina lehentasuna emango zaie beren kideen arteko autoantolamenduari eta erantzunkidetasunari.
7. Praktika-komunitate horietan ikaskuntza partekatuko ekintzak landuko dira, ikastetxeetan bertan kokatutako esperientziak trukatzeko eta komunikatzeko gune irekien bidez. Behaketan, trukean eta formazioan oinarritutako ekintza horien bidez, BeA figuren konpetentzien garapena sustatu nahi da, eta kasuan kasuko hezkuntza berritzatzeko eta eraldatzeko proiektua garatzeko beharrezkoak diren formazio-bitartekoak eskaini.

[↑Aurkibidea](#)

## Hamargarrena. BeA figurei akonpainatzeko eta informatzeko, koordinatzeko eta parte hartzeko prozedurak.

1. BeA figurek beren funtzioak betetzeko beharrezkoa den laguntza izango dute. BeA figuren laguntza, koordinazioa eta parte-hartzea eraginguneetan garatuko diren mintegien bidez egingo da batik bat (ikus III. Eranskineko [1. taula](#)).
2. Irizpide orokor gisa, mintegi bakoitzean gutxienez Berritzegune Nagusiko lau aholkularik hartuko dute parte (bat hezkuntza-etapa bakoitzeko), eta aholkulari horiek, mintegiak dinamizatzeaz gain, BeA figurei beren eginkizunetan laguntzeko lehen figura izango dira. Aholkulari-talde hori izango da BeAk beharrezko laguntza eta aholkularitza eskatzeko lehen harremana.



3. [Curriculumgunea](#) web-atarian bilduko da BeA figurentzako informazio interesgarri guztia: formazioa, laguntza, berrikuntza kudeatzeko tresnak... Atari horretan bertan, parte hartzeko zenbait foru gaituko dira, eta Hezkuntza Saileko lineako ikastaroen plataformara —[Moodlegunera](#)— sartzeko esteka erantsiko da.

4. Hezkuntza Saileko ikastaro-plataforman, Moodlegunean, BeA figuren intereseko informazio guztia jasotzen duen **ikastaroa** sortuko da. Plataforma horretan ofizioz inskribatu dira BeA figura guztiak eta **BEAtarrene**a izeneko ikastaroan formakuntzan erabilitako baliabide guztiak eskegiko dira, hauek deskargatu, egokitu eta erabil daitezzen behar dutenean.

5. BeA figurentzako informazioa (formazio-jarduera bakoitzeko deialdiak, ebaluazioak,...) ikastetxeko posta ofizialera (*Oxxxxxaa@hezkuntza.net*) eta beren *irakasle.eus* kontura bidaliko da. Era berean, ikastetxeak eta BeA berak kontu ofizial horiek erabiliko dituzte posta elektronikoz dagozkien zerbitzuekin (Berritzegune Nagusia, Hezkuntza Sailburuordetza,...) komunikatzeko.

[↑Aurkibidea](#)

## Hamaikagarrena. Ikastetxeetako gainerako koordinazio- eta gobernu-organikoekin koordinatzea.

1. BeA ikastetxeko koordinazio- eta gobernu-organoeekin koordinatuko da, gutxienez, maiztasun honekin:

- a) Hamabostean behin Zuzendaritza-taldearekin.
- b) Hilean behin, Pedagogia Batzordearekin.
- c) Urtean lau aldiz Klaustroarekin; bat ikasturtearen hasieran, eta beste hirurak hiruhileko bakoitzaren amaieran.

2. Era berean, bere hezkuntza-ibilbidea osatzen duten ikastetxeetako BeA figurekin koordinatuko da, etapan arteko trantsizioa erraztuko duen estrategia komuna garatzen laguntzeko. Gomendatzen da koordinazio hori gutxienez hiru hilean behin egitea.

[↑Aurkibidea](#)

## Hamabigarrena. Jarraipena eta ebaluazioa.

1. Bi BeA edo gehiago dituzten ikastetxeen kasuan, ikastetxeko zuzendaritzak pertsona horien arteko koordinaziorako beharrezkoak diren espazioak eta denborak ziurtatuko ditu.

2. Ikastetxearen Urteko Planean figura horien zereginen plangintza jaso beharko da, baita ikastetxean egingo diren jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ere. Horretarako, tresna bat jarriko da ikastetxeetako zuzendaritzen esku, lan hori planifika dezaten eta BeA figurei esleitu zaizkien zereginetan egindako jarduerak bildu ditzaten; horri esker, beren lanaren jarraipena egin ahal izango dute eta azken ebaluazioa egiten lagunduko dute.



3. Ikastetxeak azken ebaluazioa egingo du, eta bertan jasoko ditu esleitutako zereginen betetze-maila eta hurrengo ikasturterako hobekuntza-proposamenak. Hezkuntza Sailak ebaluazio hori egiteko eredu bat emango du, eta ebaluazioa Ikastetxearen Urteko Memoriaren parte izango da.

4. Hezkuntza Ikuskaritzak BeA figurek ikastetxean egiten duten lana gainbegiratu du, bisiten bidez edo bestelako ikuskatze-tresnen bidez; izatez, BeA figuren lanaren jarraipena egingo du eta, hartara, BeAk orientatzeko eta hobetzeko proposamenak egingo ditu, honako jarraibide hauek erreferentziazat hartuta.

[↑Aurkibidea](#)

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 16an

Begoña Pedrosa Lobato

HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEA

**ERANSKINAK:**

[I. ERANSKINA](#). Ikastetxeei beren BeA figuretarako ordu-kreditua esleitzeko irizpideak, eta ikastetxeen antolamendua eraginguneetan.

[II. ERANSKINA](#). Ikastetxeko berrikuntza-arduradunari edo -arduradunei ordu-kredituak esleitzeko irizpideak.

[III. ERANSKINA](#). BeA figurentzat formazio eta laguntza-programa espezifikoa: *BeAk Trebatzen*.

[IV. ERANSKINA](#). Berrikuntzarako ordu-kreditua eta BeA figurak esleitzeko proposamena egiteko prozedura.

[↑Aurkibidea](#)





## I. ERANSKINA. IKASTETXEEI BEREN BeA FIGURETARAKO ORDU-KREDITUA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK, ETA IKASTETXEEN ANTOLAMENDUA ERAGINGUNEETAN

### IKASTETXEEI BEREN BeA FIGURETARAKO ORDU-KREDITUA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

“Hezkuntza Saileko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen mahai sektorialaren 2022ko maiatzaren 26ko Akordioan, Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan plantilla esleitzeko irizpideei buruzkoan” jasotzen dira ikastetxeei beren BeA figuretarako ordu-kreditua esleitzeko irizpideak. Akordio horrek honela dio:

Ikastetxeetako irakasle-plantilla zuzkitzeko etapa bakoitzeko irizpide espezifikoak.

#### 1. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetarako plantilla zuzkitzeko irizpideak.

##### Ikastetxeko baliabide egonkor komunak

(...)

- **Berrikuntza- eta formazio-proiektuen koordinatzailea.** Gehienez 9 talde, lanaldi erdiko kreditua; 9 eta 19 talde artean, lanaldi oso bateko kreditua; 20 eta 29 talde artean, lanaldi eta erdiko kreditua; eta 30 talde baino gehiago, 2 lanaldi osoko kreditua.

#### 2. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako plantilla zuzkitzeko irizpideak.

##### Ikastetxeko baliabide egonkor komunak

(...)

- **Berrikuntza- eta formazio-proiektuen koordinatzailea.** Irakasle-kreditu bat esleitzen da, talde-kopuruaren arabera, ikastetxeak bere berrikuntza- eta formazio-proiektuak koordinatzen dituzan. Kreditu hori lanaldi osokoa izango, ikastetxe guztietan, gehienez 10 talde badira; eta beste lanaldi erdi bat gehiago beste 10 talde edo zatiki gehigarri bakoitzeko.

(...)

#### 3. IPI ikastetxeetan plantilla zuzkitzeko irizpideak.

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe integratuetan, etapa bakoitzerako bereizita kalkulatu da zuzkidura.

### IKASTETXEEN ANTOLAMENDUA ERAGINGUNEETAN

Ikastetxe guztiei eta, zehazki, BeA figurei erantzun integrala emateko eta, aldi berean, ikastetxe guztietatik hurbil egoteko, ikastetxeak zortzi jardun-espaziotan banatu dira (aurrerantzean *Eraginguneak*). Eraginguneak izango dira BeA figuren eta eraginpean dauden ikastetxeen formazioa, akonpainamendua eta aholkularitza antolatzeke gutxieneko egiturak.

[↑Aurkibidea](#)



### 1. ARABAKO ERAGINGUNEAN SARTZEN DIREN IKASTETXEAK (EGOITZA GASTEIZKO BERRITZEGUNEA)

Zk.	KODEA	IKASTETXEA	IKASTETXE MOTA	UDALERRIA
1.	010002	CEIP Dulantzi HLHI	2 MOTA	Dulantzi
2.	010003	CEIP Zabaleko HLHI	2 MOTA	Amurrio
3.	010009	CEIP Aramaixo Herri Eskola HLHI	2 MOTA	Aramaio
4.	010010	CEIP Arteko Gure Ama HLHI	2 MOTA	Artziniega
5.	010012	CPI Ikasbidea Ikastola IPI	6 MOTA	Arratzua-Ubarrundia
6.	010013	CEIP Araia Herri Eskola HLHI	2 MOTA	Asparrena
7.	010020	CEIP Elciego HLHI	2 MOTA	Eltziego
8.	010021	CEIP Labastida HLHI	2 MOTA	Bastida
9.	010022	CEIP Victor Tapia HLHI	2 MOTA	Guardia
10.	010039	CEIP Maeztu HLHI	2 MOTA	Maeztu
11.	010040	EEI Okondo HE	1 MOTA	Okondo
12.	010041	CEIP Ramiro De Maeztu HLHI	2 MOTA	Oion
13.	010042	CEIP Unamunzaga HLHI	2 MOTA	Erriberabeitia
14.	010046	IES Aniturri BHI	4 MOTA	Agurain
15.	010048	CEIP Izarra HLHI	2 MOTA	Urkabustaiz
16.	010049	CEIP Gobeia HLHI	2 MOTA	Gaubea
17.	010051	CEIP Abendaño Ikastola HLHI	2 MOTA	Gasteiz
18.	010052	CEIP Adurza Ikastola HLHI	2 MOTA	Gasteiz
19.	010053	CEIP Aranzabela Ikastola HLHI	2 MOTA	Gasteiz
20.	010054	CEIP Landazuri Ikastola HLHI	2 MOTA	Gasteiz
21.	010071	CEIP Luis Dorao HLHI	2 MOTA	Gasteiz
22.	010076	CEIP Miguel De Cervantes HLHI	2 MOTA	Gasteiz
23.	010080	CEIP Padre Orbiso HLHI	2 MOTA	Gasteiz
24.	010100	CEIP Ramon Bajo HLHI	2 MOTA	Gasteiz
25.	010103	CEIP San Martin HLHI	2 MOTA	Gasteiz
26.	010105	CEIP Sta. Maria De Vitoria HLHI	2 MOTA	Gasteiz
27.	010117	CEE Gorbeialde HBI		Gasteiz
28.	010133	IES Federico Baraibar BHI	4 MOTA	Gasteiz
29.	010134	IES Francisco De Vitoria BHI	3 MOTA	Gasteiz
30.	010135	IES Los Herran BHI	4 MOTA	Gasteiz
31.	010140	CEIP Odon De Apraiz Ikastola HLHI	2 MOTA	Gasteiz
32.	010142	CEIP Pedro Ignacio Barrutia Ikastola HLHI	2 MOTA	Gasteiz
33.	010153	CEIP Toki Eder Ikastola HLHI	2 MOTA	Gasteiz
34.	010156	CEIP Virgen De Oro HLHI	2 MOTA	Zuia
35.	010157	IES Murgia BHI	3 MOTA	Murgia
36.	010158	CEIP Jose Miguel Barandiaran HLHI	2 MOTA	Iruña Oka
37.	010165	CEIP Etxaurren Ikastola HLHI	2 MOTA	Aiara
38.	010172	CEIP Lantziego Ikastola HLHI	2 MOTA	Lantziego
39.	010179	CEIP P. Lope De Larrea Ikastola HLHI	2 MOTA	Agurain
40.	010185	CEIP Abetxuko Ikastola HLHI	2 MOTA	Gasteiz
41.	010192	CEIP Umandi Ikastola HLHI	2 MOTA	Gasteiz
42.	010201	IES Audioalde Lanbide Eskola BHI	3 MOTA	Gasteiz
43.	010231	CEIP San Ignacio HLHI	2 MOTA	Gasteiz
44.	010257	IES Koldo Mitxelena BHI	4 MOTA	Gasteiz



45.	010266	IES Miguel De Unamuno BHI	4 MOTA	Gasteiz
46.	010316	CEIP Garazi HLHI	2 MOTA	Legutio
47.	010317	CEIP Latorro HLHI	2 MOTA	Laudio
48.	010319	IES Zaroabe BHI	4 MOTA	Amurrio
49.	010327	CEIP Mendiko Eskola HLHI	2 MOTA	Amurrio
50.	010329	IES Mendebaldea BHI	4 MOTA	Gasteiz
51.	010330	IES Ekialdea BHI	4 MOTA	Gasteiz
52.	010332	CEIP Antonio Lopez De Guereñu-Jose Mardones HLHI	2 MOTA	Gasteiz
53.	010333	CEIP Judimendi HLHI	2 MOTA	Gasteiz
54.	010335	IES Badaia BHI	3 MOTA	Iruña Oka
55.	010338	CEIP Lamuza HLHI	2 MOTA	Laudio
56.	010339	CEIP Luis Elejalde-Rogelia De Alvaro HLHI	2 MOTA	Gasteiz
57.	010340	CEIP Divino Maestro-Maria De Maeztu HLHI	2 MOTA	Gasteiz
58.	010342	CEIP Angel Ganivet-Santa Lucia HLHI	2 MOTA	Gasteiz
59.	010343	CEIP Aranbizkarra Ikas Komunitatea HLHI	2 MOTA	Gasteiz
60.	010349	IES Samaniego-Laguardia BHI	4 MOTA	Guardia
61.	010350	CEIP Gorbeia Eskola HLHI	2 MOTA	Zigoitia
62.	010351	IES Laudio BHI	4 MOTA	Laudio
63.	010450	CEIP Ibaiondo HLHI	2 MOTA	Gasteiz
64.	010503	CEIP Salburua HLHI	2 MOTA	Gasteiz
65.	010504	CEIP Zabalzana HLHI	2 MOTA	Gasteiz
66.	010510	CEIP Lakuabizkarra HLHI	2 MOTA	Gasteiz
67.	010512	IES Lakua BHI	4 MOTA	Gasteiz
68.	010513	IES Zabalzana BHI	4 MOTA	Gasteiz
69.	010515	CEIP Mariturri HLHI	2 MOTA	Gasteiz
70.	010572	CPI Sansomendi IPI	5 MOTA	Gasteiz
71.	010604	CPI Mendialdea IPI	5 MOTA	Kanpezu
72.	010605	CEIP Errekabarri HLHI	2 MOTA	Gasteiz
73.	010613	CPI Samaniego IPI	5 MOTA	Gasteiz
74.	010617	CEIP Aldaialde HLHI	2 MOTA	Gasteiz
75.	010723	CEIP Barrundia HLHI	2 MOTA	Ozaeta



## 2. BILBO HANDIKO ERAGINGUNEAN SARTZEN DIREN IKASTETXEAK (EGOITZA SAN INAZIO BERRITZEGUNEA)

Zk.	KODEA	IKASTETXEA	IKASTETXE MOTA	UDALERRIA
1.	014027	CEIP Arrankudiaga HLHI	2 MOTA	Arrankudiaga
2.	014029	CEIP Arrigorriaga HLHI	2 MOTA	Arrigorriaga
3.	014073	CEIP Jose Etxegarai HLHI	2 MOTA	Basauri
4.	014074	CEIP Kareaga-Goikoa HLHI	2 MOTA	Basauri
